

2007 KO IRAILAREN 12KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta zazpiko irailaren hamabian, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Felix Urkola Iriarte, Xanet Barreras Jauregi, Amagoia Naldaiz Mingo eta Xabier Arrasate Aierbe.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu da 2007ko uztailaren 18an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2007ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 7 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, EHUN ETA BOST MILA ZORTZIEHUN ETA HIRUROGEITA HAMAHIRU EURO ETA HIRUROGEITA HAMAHIRU ZENTIMO (105.873,73,-)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 789 zbk.dun esped.: hosteleritza eta turismo goi mailako heziketa ziklorako 2007ko urritik 2008ko ekainera bitartean hilean 158,00 €ko dirulaguntza ematea. Ematen zaiona eskatutakoaren %100a da.

Udal tasen arloko laguntzak.-

2006 urteko udal tasen arloko laguntzen inguruan eta aurkezturiko dokumentazioa azterturik, ondorengo ekonomi laguntzak ematea:

IZEN ABIZENAK

PORTZENTAIA

DIRULAGUNTZA

CONCEPCIÓN MARZO RADA. ESP:1	50	105,77€
Mª PILAR IMAZ IRATORZA. ESP:2	75	109,2€
ANA Mª AGIRRE IRIZAR. ESP:3	100	245,46€
JOSE LUIS MARTINEZ GANUZA. ESP:4	100	141,76€

FLORENCIA LOPEZ SANCHEZ. ESP:5	75	185,85€
MARIA CARCIA OTERO. ESP:6	100	151,1€
MARIA PEREZ GARCIA. ESP:7	50	63,46€
M ^a DOLORES CUBILLO TORRES. ESP:8	100	143,83€
GERARDO GONZALEZ SANCHEZ. ESP:9	50	85,99€
M ^a ANGELES LUCAS GALVAN. ESP:11	75	124,08€
M ^a PILAR ARIZTIMUÑO ARRATIBEL. ESP:12	75	138,85€
CELIA MORENO CAÑIZARES. ESP:13	75	116,8€
PILAR ZUFIRIA ESTEIBAR.ESP:14	75	88,85€
TERESA IRASTORZA IRAZUSTA. ESP:15	50	105,86€
PIEDAD FEMIA CAMBERO. ESP:16	75	143,28€
ENCARNACIÓN TORRES ROMERO.ESP:18	100	164,49€

IV.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK.-

Kultura Batzordeburuak Lazkao txiki Musika eskolari 2006-2007 ikasturteari dago-kion 7.500 €ko dirulagutza emateko proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, aho batez, dirulaguntza hori ematea erabakitzen du.

Goierriko Hitzari dirulaguntza.-

Goierriko Hitzaren inguruan GOIEKIn izenpetutako hitzarmenean oinarrituta, Kultu-ra Batzordeburuak, 2007 ekitaldiko dirulagutzaren bigarren erdia ordaintzeko proposame-na egiten du. Hitzarmenaren arabera, urtean biztanle bakoitzeko 2€ko dirulaguntza dago-kio, guztira 10.226 €, eta beraz, erdia bost mila ehun eta hamahiru (5.113 €) euro.

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, proposatutako dirulaguntza ematea onrtu egiten du.

V.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Kultura Batzordeburuak Sanmioletako festetarako prestatu den egitarauaren berri ematen du.

VI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak hamar gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.